



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



PRENTSA-OHARRA

## ENKARTERRIETAKO MUSEOAREN AGENDEA KULTUR JARDUERAKAZ BETEKO DA DATOZAN HILEBETEETAN

- **Maiatza eta garagarrila bitartean Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagoan kultur zentroak bisita gidauak egingo ditu “Lantegietako emakumeak” erakusketara eta “50etako emakume langileak” argazki-erakusketara, eskualdeko industria-ondarea ezagutzeko kultur ibilbidea; “Batzarretik Batzarrera” jarduera pedagogikoari berrekingo jako, herritarrek Bizkaiko parlamentuaren egoitzak ezagutu daiezan; eta Sopuertako Gerra Zibiletik bizirik urten eben azken personak omentzeko ekitaldia be egingo da.**

(Abellanedan, 2022ko maiatzaren 3an). Enkarterrietako Museoa kultur proposamen ugari indartu dau bere jardueren karteldegia. Urte biko pandemiaren ostean, Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagoan kultur zentroak hainbat kultur ekimen programau ditu datozan hilebeteetarako Enkarterriko kultur ondareari balioa emateko. Garrantzitsuenek “Lantegietako emakumeak” proiektuagaz daukie zerikusia, horreen artean “Lantegietako Emakumeak, Cadagua haraneko 11 fabrika” erakusketara egingo diran bisita gidauak, Zallako Antzokian egongo dan “50etako emakume langileak” argazki-erakusketea edo proiektu horren barruan inguruko industria-ondarea ezagutzeko kultur ibilbidea. Kultur agenda osatzeko, Bizkaiko parlamentuaren egoitzak ezagutarazo gura dituan “Batzarretik Batzarrera” programa pedagogikoari ekingo jako barru, eta Espainiako Gerra Zibiletik bizirik urten eben Sopuertako azkenengo personei omenaldia egingo jake.

Urtea amaitu arte Enkarterrietako Museoan edegita egongo dan “Lantegietako Emakumeak, Cadagua haraneko 11 fabrika” erakusketea, Enkarterrietako museoko “Lantegietako emakumeak” proiektuaren bigarren fasearen parte da. Proiektu horretan, Bizkaiko industriari eusteko prozesuan emakumeek izan eben zeregin garrantzitsua erakusten da. Enkarterrietako museoak doako hiru bisita gidau antolatu ditu maiatzaren 8rako eta garagarriaren 9 eta 24rako.

Bizkaiko emakumeek herrialdeko industrializazioan gizaldi eta erdi baino gehiagoan (XIX. gizaldiaren erdialdetik XX. gizaldiaren amaierara arte) bete daben lekua autortzen dauen erakusketa horren barruan, maiatzaren 14rako, zapatuako, kultur ibilbidea antolatu da hainbat belaunalditako milaka emakumeri lana emon eutsen hainbat lantegititik. Erakusketeak emakumea protagonistea izan zan Cadaguako 11 lantegiren historia errepasetan dau. Enkarterrietako museotik urtengo dan ibilbidea



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

 Enkarterrietako Museoa

Zallako lantegi bitan geldituko da: La Herreran dagoan Plomosen eta Serranon (El Longar). Bidean, antxinako hidroelektrika bat, torre bat, baseleiza bat eta burdinola bat bisitauko ditu espedizinoak. Ibilbide hori Aldundiak maiatzean antolatzen dauen Museoen Nazinoarteko Egunean izango da. Egun horretako ospakizunean Bizkaiko museo guztiek hartzen dabe parte.

Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzan ikusgai egon zan “50etako emakume langileak” izeneko erakusketea Zallako Antzokira eroateagaz batera, Enkarterrietako museoak beste bisita gidau batzuk antolatu ditu bagilean, zehatzago, bagilaren 1ean, 8an eta 15ean. Erakusketan, argazki-materialaren bitartez, herrialdearen industrializazio- eta produkzio-sareari eusteko prozesuan emakumeek egindako lanean sakontzen da. Zuri-baltzeko argazkiak 50eko hamarkadan, eta Cadagua bailarako 11 lantegiren (Lacabex-La Guata, La Papelera, Serrano, Plaza, Plomos, Garsa, La Conchita, Rica, Muebles, Rodet eta La Encartada) lan arloan gelditzen dira.

Gernikako bonbardaketaren urteurreneko ekitaldien ostean, Enkarterrietako museoa Gerra Zibiletik bizirik urten eben sopuertarrei omenaldia egiteko ekitaldi txikia ari da prestetan. Maiatzaren 25ean, Enkarterrietako museoak gure historiako pasarterik gordinenetakoa bizi izan eben gizon-emakumeak gogorarazoko ditu. Beharbada, apurka-apurka desagertzen ari dan belaunaldi haren ausardia oraindino bertako kideak bizirik dagozala gogorarazoteko azkenengo aukeretakoa izango da.

Azkenik, Enkarterrietako Museoak, urte biko pandemiaren ostean, “Batzarretik Batzarrera” proiektua berreskuratuko dau. Proiektu horren helburua Gernika, Abellaneda eta Gerediagako Batzar Etxeen atzean zer dagoan herritarrei erakustea da. Gaur egun oraindino lurraldeko hiru egoitza parlamentarioak baliagarriak dira, horreen jatorrizko jardueria Erdi Arokoa izan arren. Bizkaiko garapen politiko, sozial eta ekonomikoan giltzarri izan ziran erabakigune parlamentario horreen historian eta ondarean sakontzeko hiru jardunaldi, maiatzaren 29an eta ekainaren 12an eta 19an.

**Informazio gehiago eta izen-emoteak:**

ENKARTERRIETAKO MUSEOA

Tl. 94 650 44 88 / 94 610 48 15

[enkarterrimuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkarterrimuseoa@bizkaia.eus)

<https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/contacto.asp>



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA

## LA AGENDA DEL MUSEO DE LAS ENCARTACIONES SE LLENA LOS PRÓXIMOS MESES DE ACTIVIDADES CULTURALES

- El centro cultural propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia realizará entre mayo y julio visitas guiadas a la exposición “Obreras” y a la muestra fotográfica “Mujeres de los 50”, un itinerario cultural para conocer el patrimonio industrial de la comarca, la reanudación de la actividad pedagógica “Batzarretik Batzarrera” para que la ciudadanía conozca las sedes parlamentarias vizcaínas, y un acto de homenaje a los últimos supervivientes de la Guerra Civil de la localidad de Sopuerta.

(Abellaneda, a 3 de mayo de 2022). El Museo de Las Encartaciones vuelve a intensificar su cartelera de actividades con numerosas propuestas culturales. Tras dos años de pandemia, el centro cultural propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia ha programado para los próximos meses diferentes iniciativas culturales para poner en valor el patrimonio cultural de Enkarterri. Las más importantes guardan relación con el proyecto “Obreras”, como las visitas guiadas a la exposición “Obreras. 11 fábricas del Cadagua”, a la muestra fotográfica “Mujeres de los 50” que se ubicará en el Teatro de Zalla o la organización de un itinerario cultural para conocer el patrimonio industrial de la zona en el marco de dicho proyecto. La agenda cultural se completará con la reanudación del programa pedagógico “Batzarretik Batzarrera”, que quiere dar a conocer las sedes parlamentarias vizcaínas, y con un homenaje a los últimos supervivientes de la Guerra Civil española originarios de Sopuerta.

La muestra “Obreras. 11 fábricas del Cadagua”, que estará abierta hasta final de año en el Museo de Las Encartaciones, forma parte de la segunda fase del proyecto “Obreras” del museo encartado, en el que se destaca de forma ampliada el relevante papel que tuvieron las mujeres en el mantenimiento de la industria de Bizkaia. El museo encartado ha organizado tres visitas guiadas gratuitas para los días 8 de mayo, y 9 y 24 de julio.

En el marco de esta exposición que reconoce el papel de las mujeres de Bizkaia en la industrialización del país durante más de siglo y medio (desde mediados de siglo XIX hasta finales del XX), se ha organizado para el sábado 14 de mayo una ruta cultural por distintas fábricas que durante décadas dieron trabajo a miles de mujeres de varias generaciones. La exposición repasa la historia de 11 fábricas del Cadagua en las que



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



la mujer fue protagonista. La ruta, que partirá del museo encartado, se detendrá en dos factorías de Zalla: Plomos, en La Herrera, y Serrano (El Longar). Por el camino, la expedición visitará una antigua hidroeléctrica, una torre, una ermita y una ferrería. Este itinerario se integrará dentro del Día Internacional de los Museos que organiza en mayo la Diputación y en donde participan todos los museos de Bizkaia.

Coincidiendo con el traslado al Teatro de Zalla de otra exposición, titulada “Mujeres de los 50”, que ya estuvo expuesta en la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia, el museo encartado ha organizado otras visitas guiadas en junio, concretamente, los días 1, 8 y 15 de este mes. En la muestra se profundiza con material fotográfico en el proceso de industrialización del país y en la labor de las mujeres en el sostenimiento del tejido productivo del territorio. Las instantáneas en blanco y negro se detienen en la década de los 50 y en la vertiente laboral de 11 fábricas del valle del Cadagua (Lacabex-La Guata, La Papelera, Serrano, Plaza, Plomos, Garsa, La Conchita, Rica, Muebles, Rodet y La Encartada).

Tras los actos de aniversario del bombardeo de Gernika, el museo encartado está preparando un pequeño acto de homenaje en este caso a los supervivientes de la Guerra Civil de Sopuerta. El 25 de mayo, el museo encartado recordará a las hombres y mujeres que vivieron uno de los episodios más cruentos de nuestra historia. Será quizás la última oportunidad de recordar en vida la valentía y el sufrimiento de aquella generación que, poco a poco, está desapareciendo.

Por último, el Museo de Las Encartaciones recuperará, tras dos años de pandemia, su proyecto “Batzarretik-Batzarrera”, que pretende mostrar a la ciudadanía qué hay detrás de las Casas de Juntas de Gernika, Abellaneda y Gerediaga, las tres sedes parlamentarias del territorio que hoy en día siguen manteniendo su función legislativa pese a que su primitiva actividad se remonta a la Edad Media. El circuito se completa en tres jornadas -29 de mayo, y 12 y 19 de junio- para profundizar en la historia y patrimonio de estos centros de decisión parlamentarios que fueron claves en el desarrollo político, social y económico de Bizkaia.

**Más información e inscripciones:**

MUSEO DE LAS ENCARTACIONES

TI. 94 650 44 88 / 94 610 48 15

[enkarterrimuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkarterrimuseoa@bizkaia.eus)

<https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/contacto.asp>